BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4701

AGINDUA, 2014ko urriaren 6koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Getxoko (Bizkaia) «Haurtegi» Haur-hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena emateko dena.

Getxoko «Haurtegi» Haur-hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena eskatuz, ikastetxe horren titularra den «M.ª Dolores Vaquero Suaña» andreak abiarazitako espedientea aztertu da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: Heziketarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa; Ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua; apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua, eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– «Haurtegi» Haur-hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena ematea: egun titulartasuna «M.ª Dolores Vaquero Suaña» andreak du eta aurrerantzean «Haurtegi Gova, S.L.» erakundeak izango du; berak subrogatuko ditu ikastetxearen betebehar eta zama guztiak. Ikastetxea Bizkaian dago, Getxo udalerriko Handikoetxe kaleko 23. zenbakian, eta 48009347 kode-zenbakia du.

2. artikulua.– Titulartasun-aldaketa Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da, baina horrek ez du inolako eraginik izango ikastetxearen ohiko jardunean.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 6a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.